



2002/03/14ko prentsa-oharra

EZKONTZEN ESTATISTIKA (EZKE)2001eko hirugarren hiruhilekoa

2001EKO HIRUGARREN HIRUHILEKOAN, 2000KO ALDI BEREAN BAINO EZKONTZA GUTXIAGO

2001eko uztail, abuztu eta irailean, 3.521 ezkontza zenbatu ziren

2001eko uztail, abuztu eta irailean, 3.521 ezkontza zenbatu ziren Euskal AEn, hau da, %13,9ko jaitsiera izan da, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, Eustaten datuen arabera. Herrialde historikoka, bizkaitarrek 1.832 ezkontza ospatu zituzten; ondoren, gipuzkoarrak daude, 1.075rekin, eta arabarrak, 447rekin. Euskal AEtik kanpo bizi direnen artean, ezkontzen kopurua 167ra iritsi zen.

Irailak lekua kendu dio uztailari, ezkontzeko nahien den hilabete gisa

Orain arte, urteko hilen artean, uztailean ospatzen zen ezkontza gehien. 2001ean, ordea, iraila izan da lehena: hilabete horretan, hain zuzen, 1.551 ezkontza ospatu dira; uztailean, berriz, 1.426. Bestalde, udako hilen artean, abuztuan ospatu zen berriro ere ezkontza gutxien (544).

Aipatzekoa da aldi horretan nola gehitu den elizaz ospatutako ezkontzen kopurua. Neguko hilabeteetan ezkontzen erdiak baino gehiago ezkontza zibilak izan ziren; hilabete horietan ez bezala, hirugarren hiruhileko horretan, ospakizunen %75,1 ezkontza erlijiosoak izan ziren. Araban, ezkontza kanonikoak guztizkoaren % 74,5 hartu zuten; Gipuzkoan %72,4, eta Bizkaian, kopuru hori %75,9raino iritsi zen.


2001eko hirugarren hiruhileko horretako 3.521 ezkontzetan, bizilekua Euskal AEn duten 3.382 gizonezko eta 3.489 emakumezko ezkondu ziren. 3.228 senargaiantzat (%95,4), hori izan zen euren lehenengo ezkontza; 14 alargun eta 140 dibortziatu, aldiz, berriro ezkondu ziren. Lehenengo ezkontza duten emakumeen ehunekoa gizonezkoenaren antzekoa izan zen: emaztegai ezkongabeak 3.336 izan ziren (%95,6), alargunak 11, eta dibortziatuak 142.

Ezkontzak ezkongaien adinaren arabera banatuz gero, senargaien artean, %58,8k 30 urtetik gora zituen; emaztegiaren artean, berriz, ehuneko horrek %38,5 hartu zuen.

	2001eko 3. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoa (2001eko 2. hiruhilekoa)		Aurreko urteko hiruhileko bera (2000ko 3. hiruhilekoa)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
EZKONTZAK	3.521		3.006		4.089	
Kanonikoak	2.644	75,1	2.103	70,0	3.178	77,7
Zibilak	877	24,9	903	30,0	911	22,3
SENARGIAK	3.382		2.896		3.913	
Ez kongabea	3.228	95,4	2.742	94,7	3.755	96,0
Alarguna	14	0,4	16	0,6	18	0,5
Dibortziatua	140	4,1	138	4,8	140	3,6
EMAZTEGIAK	3.489		2.971		4.053	
Ez kongabea	3.336	95,6	2.830	95,3	3.878	95,7
Alarguna	11	0,3	10	0,3	15	0,4
Dibortziatua	142	4,1	131	4,4	160	3,9

Iturria: EUSTAT

Ezkontzen hilez hileko mugimendua



Iturria: EUSTAT

oinarria 100= b.b.

Argibide gehiagorako:

	Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
	Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
	Tel:+34-945-01 75 00 Fax:+34-945-01 75 01 E-mail: eustat@eustat.es
	Harremanetarako pertsona: Teresa Remirez de Ganza Zabala
	Tel:+34-945-01 75 34 Fax:+34-945-01 75 01
Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es	